



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko uztailaren 3a

73. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

- 11-26/LEY-00004. Foru-lege proiektua, gazteriari eta belaunaldiarteko justiziari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).
- 11-26/LEY-00005. Foru-lege proiektua, industriari eta enpresa sustapenari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

- 11-26/PRO-00007. Foru Legea, logela-errentamendua arautzekoa. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-26/PRO-00010. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 5/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako Errepideei buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsi du (10. or.).
- 11-26/PRO-00011. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsi du (12. or.).
- 11-26/PRO-00012. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 10/2010 Foru Legea, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsi du (14. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/DEC-00033. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere atsekabea adierazten baitu Venezuelako izandako lurrikara bikoitzaren ondorio izugarriengatik. Eledunen Batzarrak onetsi du (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/PES-00197. Galdera, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-produktuak eta elikagaiak hegoaldeko herrialde-
etara esportatzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00199. Galdera, ekologiaren sektoreko eragileen kopuruari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez
jaunak egin du (18. or.).

- 11-26/PES-00200. Galdera, ekoizpen ekologikora bideratzen den azaleraren portzentajeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00201. Galdera, Arga ibaiaren ondoko kokalekuetan bizi diren etxerik gabeko pertsonen bizi-baldintzak eta arreta hobetzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00202. Galdera, Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legeak aurreikusitako erregistroan izena emandako operadoreei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00203. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak esleitzeko prozedurari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00204. Galdera, Sesmako biometano-plantaren proiektuari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (21. or.).
- 11-26/PES-00205. Galdera, iberiar otsoaren kontserbazioaren egoera dela-eta Espainiak Europako Batzordean sei urtean behin aurkeztu behar duen txostenari buruzkoa. Félix Zapaterio Soria jaunak egin du (21. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (23. or.).
- 11-26/ELCR-00003. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMPren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kideen izendapena (23. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-26/LEY-00004. Foru-lege proiektua, gazteriari eta belaunaldiarteko justiziari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2026ko irailaren 15eko 12:00ak arte luztzea gazteriari eta belaunaldiarteko justiziari buruzko foru-lege proiektuari zuzenketak aurkez-

teko epea. Foru-lege proiektua 2026ko ekainaren 12ko 64. NPAOn argitaratu zen.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/LEY-00005. Foru-lege proiektua, industriari eta enpresa sustapenari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. 2026ko irailaren 15eko 12:00ak arte luztzea industriari eta enpresa sustapenari buruzko foru-lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea.

Foru-lege proiektua 2026ko ekainaren 16ko 65. NPAOn argitaratu zen.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-26/PRO-00007. Foru Legea, logela-errentamendua arautzekoa**OSOKO BILKURAK ONETSI DU**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Logela-errentamendua arautzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, logela-errentamendua arautzekoa**HITZAURREA**

Nafarroak eskumen eskusiboa du etxebizitza-alorrean, Foru Hobetzearen 44.1 artikulua ezarzen duenez. Halaber, eskumen horrek Foru Komunitateari ahalmena ematen dio politika horrekin lotura duten figura zibilak arautu eta ezartzeko, Konstituzio Auzitegiak jadanik ezarri zuenez.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateak eskumen eskusibo historikoa du zuzenbide zibil foralaren arloan eta, beraz, hura mantendu, aldatu eta garatzekoa, baita zuzenbide substantibo horretatik eratorritako prozesu-arauak tankeratzekoa ere, hala xedaturik dagoenez Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian eta 149.1.6 eta 149.1.8 artikuluetan, bai eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 48.1 eta 48.2 artikuluetan ere.

Martxoaren 1eko 1/1973 Legearen bitartez onetsi zen Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioa. Testu hori, bertako zioen azalpenaren arabera, bere onespengaraian indarrean zegoen zuzenbide zibilaren irudi leiala izan zen, Nafarroako zuzenbidearen jarraipen historiko gisakoa, eta ez berezitasun juridiko gutxi batzuen bilduma gisakoa.

Gauzen errentamendua jasota zegoen jadanik lege horretan, ondasunei buruzkoa zen III. liburu-ko XV. tituluaren ("Gauzen errentamendua"), 588. legetik 596. legera bitartean.

Gaur egun, gauzen errentamendua IV. liburu-ko ("Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak") III. tituluaren ("Kontratuak") VIII. kapituluaren ("Gauzen errentamendua") arautzen da; zehazki, 587. legetik 596. legera bitartean, zeinak idatzi baitziren Nafarroako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta gaurkotzeko apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legeak indarra hartu ondoren.

Nafarroan kokaturik dagoen etxebizitza bateko gela baten errentamendua Hiri Errentamenduen Legearen aplikaziotik salbuetsita dago, eta, ondorioz, Foru Berriko 2, 6 eta 7. legeei jarraikiz, haren araubidea dira alderdiek berariaz itundu dutena –muga bakarra izanik ituna moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa izatea, hirugarren batentzat kaltegarri izatea edo Konpilazioko deuseztasun-zigordun debeku-arau batekin kontraesanean egoitea–, ohitura, Foru Konpilazioko legeak, Nafarroako lege zibilak –halakorik balego– eta Nafarroako zuzenbidearen printzipio orokorrak; hori guztia, Kode Zibila izanik ordezeko moduan aplikatu beharrekoa.

Gaur den egunean, etxebizitza duin baterako eskubide konstituzionala bermatzeko, zeina Konstituzioaren 47. artikuluan baitago jasota, funtsezko gertatzen da araugintzaz bereizketa egitea eta logela-kontratuko maizterra babestea, kontratu horren xedea denean maizterrak duen etxebizitza-premia iraunkorra asetzea, halako moldez non bereizi egingen baita xede nagusia aldi baterako premia bat asetzea den beste kasuetatik. Babes horren paradigma osatzen du kontratuaren gutxieneko iraupenaren, epeen eta luzapenen arauketak, indarreko Hiri Errentamenduen Legearen ezarritako modu berberakoa. Azken arau hori jasota dago Nafarroan etxebizitza-errentamendurako, Foru Berriaren 587. legeak gaur egun ezartzen duenaren bidetik. Hori horrela, ez dago inolako oztoporik babes-araubide horri berari maizterraren etxebizitza-premia iraunkorrari erantzuteko logela-errentamenduan abegi egiteko.

Foru-legearen I. tituluan xedapen orokorrak ezartzen dira: Horietan adierazten da ezen araua Nafarroan kokatuta dauden etxebizitzaren errentamendu eta erabilerarako kontratuei aplikatuko zaiela, horrenbestez araubidea ezartzeari heldurik maizterraren etxebizitza-premia iraunkorrari erantzuteko logela-errentamenduarentzat, denboraldi baterako logela-errentamenduarentzat eta ostatatze-kontratuarentzat, eta halaber ezarririk horiek Nafarroako Etxebizitza Errentamendu Kontratuen Erregistroan nahitaez inskribatzeko betebeharra.

II. tituluak ohiko etxebizitzarako logela-errentamendua arautzen du. Halakotzat jotzen da etxebizitza bateko gela bizigarri baten gaineko errentamendua, etxebizitzako beste gela batzuk errentatzailearekin edo beste maizter batzuekin batera partekatuz erabiltzeko eskubidearekin baterakoa nahiz halakorik gabekoa, eta erabilera nagusizat izanen duena maizterraren etxebizitza-premia iraunkor edo ohikoa asetzea, iraunkortasunez nahiz aldi baterako.

Baita ere, logela-errentamendutzat jotzen dira maizterraren ohiko etxebizitza baterako premiari erantzuten dioten aldi baterako errentamenduak. Araudiaren aplikaziopera ekartzen dira, halaber, trastelekuak, garaje-tokiak, altzariak eta errentatzaile berak finkaren osagarri gisa errentan emandako beste edozein toki atxiki edo gune edo lagatako beste edozein zerbitzu. Gainera, logela-errentamenduko kontratueta-raino hedatzen da Nafarroan indarrean dagoen legediak etxebizitza-errentamenduentzat jadanik ezarritako informazio-betebeharra. Logela-errentamenduko kontratuari etxebizitza-errentamenduko kontratuaren babes-araubidea aplikatzen zaio honakoei dagokienez: kontratuaren iraupena, errenta, gutxieneko epea, luzapena, atzera-egitea, maizterraren ezkontza edo elkarbizitza, suntsiarazpena, besterentzea, haren banantze, dibortzio edo ezkon-deusezetasunaren efektuak, maizterraren heriotza, gastu orokorrak, zerbitzu indibidualak, logela kokatzen den etxebizitzaren kontserbazioa, hobetze-obrak eta fidantza.

Aldi baterako kontratueta-n ezartzen da ezen iraupena alderdiek askatasunez itundurikoa izanen dela, eta kontratuan adierazitako aldibaterakotasun-kausak zehaztutakoa, ezin izanen delarik urtebete baino gehiagokoa izan. Xedatzen da ezen, denboramuga hori baino gehiagokoa izanez gero, ulertuko dela maizterraren ohiko etxebizitza iraunkorrerako adostu dela kontratua betiere. Horrez gain, aldi baterako kontratuen luzatze-araubidea ezartzen da.

Ildo horretan, iraunkorra nahiz aldi baterakoa den logela-errentamenduko kontratu horietaraino eramaten dira etxebizitza-alorrean ezarritako babes-araubidea eta etxebizitza-errentamenduei buruzko

xedapenetatik fidantzari, errenta-zehaztapen, -mugatze eta -eguneratzeari, hobekuntzen ondoriozko igoerari, gastu orokorren zama hartzeari eta zerbitzu indibidualei dagozkien haiek. Horrez gain, tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zonatzat deklaratuak izan direnetan aplikatzekoa den gehienezko errentaren mugapena ezartzen da, eta azalera erabilgarriaren arabera errenta banatzeko arauak zehazten dira. Araubidea halaber osaturik dago okerreko kopuruak erreklamatzeko aukerari buruzko xedapenekin, bai eta errentarik ez ordaintzeagatiko utzarazpen-kasuan horiek konpentsatzeari eta akzioaren preskripzioari (5 urte) buruzkoekin ere.

Azkenik, kasu horietarako arautzen dira elkarlaguntza-erkidegoak. Erkidego horiek Foru Berriaren 117tik 119ra bitarteko legeetan jasotzen dira, eta etxebizitza bererako elkarbizitza-itunak aurreikusten dituzte, diruzko kontraprestaziorik gabekoak, xedetzat dutenak bizikideek elkarri laguntza ematea, gastu amankomunak eta etxeko zereginak partekaturik. Itunetan jaso ahalko dira haien arteko harreman- nahiz sorospen-harremanak, elkarbizitzak iraun bitartean ezartzen dituzten eskubide eta betebeharrak, edo bizikide bakoitzak gastu amankomunetara eta etxeko zereginetara egin beharreko ekarpen berdina nahiz desberdina.

Titulua amaitzen da xedatuz ezen deusezak direla foru-lege honetan araututakoarekin kontraesanean egonik maizterrarentzat kaltegarriak diren klausulak.

Bestetik, III. tituluak arautzen eta definitzen du denboraldi baterako eginiko logela-errentamendua, zeina izanen baita huts-hutsean xedetzat izanen duena foru-lege honetako aurreko ataletan deskribatzen direnez bestelakoa den etxebizitza-premia bat asetzea. Esaten du ezen, betiere, denboraldi baterakotzat joko dela opor, turismo, zeregin ludiko nahiz jostetarakoa den logela-errentamendua. Mota horretako errentamenduak, ukazioz definituak, arautuko dira itundutakoaren, tokiko usadio eta ohituren eta, ordezkio moduan, eta Nafarroan jasotako lege bereziekin kontraesanean ez dauden heinean, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioko xedapenen bitartez, ostatatze-kontratuak bezala, zeinak arau honen IV. tituluan definituta baitaude.

Araubidea bi xedapen gehigarrirekin osotzen da. Horiekin, araudi honek ezartzen duenera doitzen dira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko apartatu eta xedapenak, eta ezartzen da zer baldintza bete behar dituzten denboraldi baterako etxebizitzaz bestelako erabilerarako errentamendukontratuek.

Azkenik, azken xedapenetako lehenak etxebizitza-alorrean eskudun den departamentuari ahalmena ematen dio arauaren erregelamenduzko garapena egiteko; eta azken xedapenetako bigarrenak ezartzen du arauak indar hartuko duela Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean, salbu eta Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa ukitzen duten arauak, zeinek 2027ko urtarrilaren 1ean hartuko baitute indarra.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru-lege hau aplikatuko zaie Nafarroan kokatuta dauden etxebizitzaren errentamendu-kontratuak eta haien erabilera lagatzeko bestelako kontratuak.

2. artikulua. Xedea.

Foru-lege honen xedea da araubidea ezartzea maizterrak ohiko etxebizitza baterako duen premia asetzeko logela-errentamenduarentzat, denboraldi baterako logela-errentamenduarentzat eta ostataztearentzat.

3. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa.

Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan inskribatu beharrekoak izanen dira logela-kontratuak, dela ohiko etxebizitzarako dela denboraldi baterako eginikoak, bai eta ostatatze-kontratuak ere, etxebizitza-alorreko foru-araudian ezarritako zertzeladen arabera.

II. TITULUA

Ohiko etxebizitzatarako logela-errentamendua

4. artikulua. Kontzeptua.

1. Ohiko etxebizitzatarako logela-errentamendutzat jotzen da harako hura zeinetan pertsona batek etxebizitza bateko gela bizigarri baten erabilera lagatzen baitu, beste gela batzuk errentatzailearekin edo beste maizter batzuekin batera partekatuz erabiltzeko eskubidearekin batera nahiz halakorik gabe, xede delarik maizterrak duen ohiko etxebizitzarako premia asetzeko, modu iraunkorrean nahiz aldi baterako.

Azken kasu horretan, aldi baterako errentamendutzat jotzen da harako hura zeinak zio gisa baitauzka arrazoi profesionalak, lanekoak, ikasketa-edo prestakuntza- arlokoak, sanitarioak edo medikoak, etxebizitza entregatzen dioten arteko itxaronaldiari dagozkionak, ohiko etxebizitzara itzultzeko itxaronaldiari dagozkionak edo etxebizitza-premiarekin lotura duen antzeko beste edozein zirkunstantzia.

Halaber, errentamendua iraunkorra izatearen presuntzioa aplikatuko da kontratuan ez direnean esanbidez adierazten logela-erabileraren aldibaterakotasunaren zergatia eta helburua.

2. Logela-errentamenduaren eskaintza eta horretarako kontratuaren nahitaezkoa izanen da maizterri eskueran ipintzea, eta haietan adieraztea, Nafarroan indarrean dagoen araudiak etxebizitza-errentamenduarentzat eskatzen dituen informazio eta dokumentazio berberak.

Horrez gain, aldi baterakoak diren ohiko etxebizitzarako logela-kontratuaren, esanbidez adieraziko da haien aldibaterakotasunaren eragilea den zio zehatza, kasu bakoitzari dagozkion frogagiriak erantsita, bai eta kontratuan aurreikusten den iraupenarekin horrek duen zerikusia.

3. Foru-lege honek logela-errentamenduari buruz jasotzen dituen arauak halaber aplikatuko zaizkie trastelekuei, garaje-tokiei, altzariei eta beste edozein toki atxiki edo errentan emandako guneri edo finkaren osagarri gisa errentatzaile berak lagatako zerbitzuei.

5. artikulua. Iraupena.

1. Ohiko etxebizitza iraunkorreko erabilerarako logela-errentamenduari aplikatzekoak izanen zaizkio etxebizitza-errentamenduari buruzko arauak, honako hauei dagokienez: kontratuaren iraupena, errentaren zehaztapena, gutxieneko epea, luzapena, kontratuko atzera-egitea, maizterren ezkontza- edo elkarbizitza-kasuaren efektuak, suntsiarazpena, etxebizitzaren besterentzea, maizterren ezkonbanantze, dibortzio edo ezkon-deuseztasun edo heriotza kasuak, gastu orokorrak, zerbitzu indibidualak, logela kokatuta dagoen etxebizitzaren kontserbazioa, hobekuntza-obra egitea eta fidantza.

2. Aldi baterako logela-kontratuaren, alderdiek libreak adosturikoa izanen da iraupena, eta kontratuan adierazitako aldibaterakotasun-zioaren arabera. Ezein kasutan ez da izanen urtebete baino gehiagokoa. Baldin kontratuan adierazitako iraupena urtebete baino gehiagokoa bada, betiere ulertuko da maizterrak ohiko etxebizitza iraunkor baterako duen premia asetzeko sinatu dela.

Baldin eta kontratuan adierazitako iraupena urtebete baino gutxiagokoa bada, eta amaiera iristean bere horretan segitzen badu aldibaterakotasunaren zioak, kontratua nahitaez luzatuko da hilabete epeka, harik eta errentamenduak urtebeteko gehieneko iraupena iritsi arte edo zio hori amaitzen den arte, azken hori lehenago gertatuz gero.

3. Aldi baterako logela-errentamenduko kontratuetan, maizterrak zilegi izanen du kontratuan atzera egitea, gutxienez ere hilabete iragan denean sinatu zenetik. Horretarako, errentatzaileari horren berri eman beharko dio hamar eguneko gutxieneko aurrendenboraz. Errentatzaileari ez zaio kalte-ordainik eman beharko.

6. artikulua. Errenta.

1. Logela-errentamenduari, hala ohiko etxebizitzarako nola aldi baterako denean, aplikatzekoak izanen zaizkio etxebizitza-errentamendua arautzen duten xedapenak, honako hauei dagokienez: fidantza, errentaren zehaztapen, mugaketa eta eguneratzea, hobekuntzen ondoriozko errenta-igoera, bai eta gastu orokorren eta zerbitzu indibidualen jasana-razpena ere, hiri-errentamenduen alorreko araudi indardunaren arabera.

2. Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zona deklaratuak izan direnetan kokatuta dauden etxebizitzak kasuan, etxebizitza berean eta aldi berean indarrean dauden logela-errentamenduko zenbait kontratutan itunduriko errenten batura ezin izanen da handiagoa izan etxebizitza osoaren errentamenduari aplikatzekoa zaion gehieneko errenta baino.

3. Tentsiopeko etxebizitza-merkatuaren zona deklaratuak izan direnetan dagoen logela bakoitzaren errentamenduari aplika dakioken gehieneko errenta zehaztuko da kontratuaren xede den gelak etxebizitzaren guztizko azalera erabilgarriarekiko duen azalera erabilgarriaren proportzioan.

4. Maizterrak zilegi izanen du errentatzaileari erreklamatzeko oker ordaindutako kopuruak eta legez sorturiko interesak, bai eta horien konpentsazioa eskatzea ere, edo horien ordainketa alegatzea errentarik ez ordaintzeagatik etxetzarazpeneko prozeduran.

5. Errentatzaileari oker ordaindutako kopuruak erreklamatzeko akzioa bost urtean preskribatuko da.

7. artikulua. Elkarlaguntza-erkidegoak.

Etxebizitza bereko logelen maizterrek zilegi izanen dute beren artean elkarlaguntza-erkidego bat eratzea.

Erkidego hori idatzizko itun bidez formalizatu beharko da, zeinetan arautuko baitira erkideek gastu amankomunetara eta etxeko zereginetara eginen duten ekarpen berdin nahiz desberdina, bai eta, kasua bada, beren arterako adosten dituzten sorospen-prestazioak ere.

8. artikulua. Arauen izaera.

Deusezak izanen dira maizterren kaltetan ezartzen diren edo titulu honetan xedatuarekin kontraesaneari dauden estipulazioak, salbu eta indarreko araudiak kontrakoa espresuki baimentzen duenean.

III. TITULUA

Denboraldirako logela-errentamendua

9. artikulua. Kontzeptua.

1. Denboraldirako logela-errentamendutzat jotzen da harako hura, zeinean errentatzaileak etxebizitza baten gela baten erabilera lagatzen baitu, maizterren bizileku-premia puntual, esporadiko edo iragankor bat, ohiko etxebizitzarakoaz bestelakoa, asetze aldera.

2. Denboraldirako logela-errentamenduak xede bakar izanen du foru-lege honen 4. artikularen 1. apartatuaren arabera ohiko etxebizitzarakoak diren premiekin zerikusirik ez duten bizileku-premiak asetzea.

Betiere joko dira denboraldirako logela-errentamendutzat harakoak zeinek helburutzat oporrak, turismoa, zeregin ludikoak edo josteta baitituzte.

10. artikulua. Araubide juridikoa.

Denboraldirako logela-errentamenduak araubide izanen ditu alderdien artean itundutakoa, tokiko usadio eta ohiturak, eta, ordezkotzat moduan, eta Nafarroan aplikatzekoak diren lege bereziekin kontraesaneari ez dauden heinean, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioko xedapenak.

IV. TITULUA

Ostatatze-kontratua

11. artikulua. Kontzeptua.

Ostatatze-kontratutzat jotzen da harako hura zeinean alderdietako batek etxebizitza baten edo etxebizitza horren gela baten erabilera lagatzen baitu, bizilekuari loturiko zerbitzu-emate gehigarriarekin batera –zerbitzu-emate horretan sartuta dauden gutxieneko zerbitzuak dira garbiketa, hornidurak eta, kasua bada, zaintza- edo gordailutze-zerbitzuak–, prezio zehatz baten truke.

12. artikulua. Araubide juridikoa.

Ostatatzeak araubide izanen ditu alderdiek beren artean itundutakoa, tokiko usadio eta ohiturak, eta, ordezkotzat moduan, Nafarroako Zuzenbide Zibil Foralaren Konpilazioko xedapenak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Aldatzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

Aldaketak edo gehikuntzak egiten dira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen honako artikulua eta xedapen hauetan:

Bat. 40. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira, eta haxe izanen dute testu berria:

“1. Ohiko etxebizitzaren errentamenduetan, denboraldirako errentamenduan eta logela-errentamenduetan, berdin delarik azken horien izaera ohiko etxebizitzarena nahiz denboraldirakoarena izatea, errentatzailea behartuta egonen da hartzaileari kontratuaren formalizazioaren aurretik ematera etxebizitzaren eta/edo logelaren funtsezko baldintzei buruzko behar adinako informazioa, hala fisikoena nola juridikoena, bai eta kontratuaren oinarritzko baldintzei buruzkoa ere.

2. Berezik, zertzelada hauek aipatu beharko dira gutxieneko informazioan:

a) Etxebizitzaren deskribapena, azalera erabilgarria adierazita; etxebizitzaren zerbitzuena, instalazioa eta hornidurena.

b) Logela-errentamenduko kontratuaren, maizterrak, kasua bada, zer gune amankomunetarako sarbidea izanen duen.

c) Errentaren guztizko prezioa, maizterrak bere gain harturiko beste kopuru batzuk, likidazioaren aldizkakotasuna adierazita, eta etxebizitza-alokairuaren prezioen erreferentzia-indizea.

d) Errentamenduaren epea.

e) Errentamenduaren epean zehar errentaren prezioa eguneratzeko modua.

f) Fidantza, eta maizterrari eskatzen zaizkion beste berme batzuk.

g) Etxebizitzaren eta horren ingurunearen irisgarritasun unibertsalaren maila eta ororentzako diseinuaren maila.

h) Etxebizitzen gain formalizatu diren azken errentamendu-kontratuaren itundutako errenta, bai eta kasu bakoitzean aplikatzeko gertatzen den Alokairuaren Erreferentzia-prezioen Indizea ere.

i) Denboraldirako etxebizitzaz bestelako erabilerarakoak diren kontratuaren, beharrezkoa izanen da kasuko araudian aurreikusitako informazioa ematea”.

Bi. Aldatu egiten da 65. artikuluen 14. apartatua, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“14. Foru lege honen V. tituluko II. kapituluaren etxebizitzak erosi edo errentan emateko aurreikusita dagoen informazioa ez ematea, ez-emate horrek kontratuaren funtsezko baldintzen gaineko nahasmendurik sortzen badu”.

Hiru. Aldatu egiten da 90. artikuluen 1. apartatua, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuaren Erregistroa eratzen da, izaeraz administratiboa eta deklaratihoa, eta nolakotasunez elektronikoa. Nafarroako Etxebizitza Erregistroan txertatuta egonen da, eta bertan inskribatu beharko dira Foru Komunitatearen lurraldean kokatuta dauden etxebizitzaren errentamenduko kontratu guztiak, berdin delarik haiek ohiko etxebizitzarako errentamendu-kontratuak nahiz denboraldirako errentamendurakoak izatea, edo ohiko nahiz denboraldirako logela-errentamendurakoak, bai eta beste erregistro berariazko batzuetan inskribatu beharrezkoa den turismo-jarduerakoak ez diren ostatatze-kontratuak ere”.

Lau. Aldatu egiten da 92. artikuluen 1. apartatua, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Errentatzaileak kasua denean inskripzioa eskatzeko epea hilabetekoa izanen da, kontratu-formalizatzearen datatik edo kontratuaren indaraldi-hasierarenetik zenbatzen hasita, azken hori geroagokoa bada”.

Bost. 93 artikulua aldarazi da; artikulua horrek hurrengo idazkera izango du:

“93. artikulua. Inskripzio-idazpena.

1. Inskripzio-idazpenean jasota utziko dira formalizaturiko errentamendu-kontratuaren datuak, hala nola:

a) Finkaren kokalekua identifikatzeko datuak: udalerria, katastro-erreferentzia, kalearen izena, finkaren zenbakia, eskailera, solairua eta atea.

b) Etxebizitza-mota: kolektiboa edo familia bakarrekoa.

c) Azalpena, ohartarazten duena ea etxebizitza hori inolako babes publikoren pean dagoen, edo bitartekaritzarako nahiz etxebizitza libreak lagatzeko programa publikoren batean sartuta dagoen; eta baiezkotan, babes publikoaren mota, edo bitartekaritza- nahiz lagapen-programa publikoarena, eta kasuko identifikazio-zenbakia.

d) Errentamendu-mota: ohiko etxebizitzarena, denboraldirakoarena, edo ohiko nahiz denboraldirako logelena.

e) Kontratugileen identifikazioa: izena eta abizenak edo sozietate-izena, helbidea, identifikazio fiskaleko zenbakia, nortasun-agiriaren zenbakia edo, kasua bada, atzerritarren identifikazio-zenbakia edo pasaporte-zenbakia.

f) Kontratu-formalizazioaren eguna.

g) Kontratu-indarraldiaren eguna.

h) Adosturiko errenta.

i) Inskripzio-eguna.

j) Kontrol-zenbakia.

k) Fidantzaren zenbatekoa.

l) Denboraldirako etxebizitzaz bestelako erabilerarakoak diren kontratuetan, beharrezkoa izanen da kasuko araudian eskaturiko informazioa jasotzea.

m) Beharrezkotzat jotzen den beste edozein.

2. Administrazio eskudunak zilegi izanen du errentamendu-kontratuaren kopia bat aurkez dadin eskatzea, inskripzio-idazpena egiteari begira”.

Bigarren xedapen gehigarria. Denboraldirako etxebizitzaz bestelako erabilerarako errentamendu-kontratuak.

1. Denboraldirako etxebizitzaz bestelako erabilerarako errentamendu-kontratuak, Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 3. artikuluan 2. apartatuaren babesean eginikoak, behartuta egonen dira honako betekizun hauek betetzerat:

a) Esanbidez adieraztera ezen etxebizitza bideratuko dela denboraldirako etxebizitzaz bestelakoa den erabileragatiko errentamendura.

b) Kontratua egitea erakartzen duen zio zehatza adieraztera, eta horren frogatzea ematera. Ondorio horietarako, honako hauetako bat izan behar da:

1. Lan-arrazoiak: beharrezkoa izanen da kontratugile den enpresaren identifikazioa, lan-jarduera egiten den lantegiaren helbidea eta lan-kontratuaren iraupena zehaztea. Errentamendu-kontratuari lan-kontratuaren kopia bat atxiki beharko zaio.

2. Prestakuntza-arrazoiak: beharrezkoa izanen da adieraztea zer ikasketa egiten diren, zein ikastetxetan egiten diren eta zer iraupen izanen

duten. Errentamendu-kontratuari ikasketa horietan matrikulatu izanaren frogagiria atxiki beharko zaio.

3. Sorospen-arrazoiak: beharrezkoa izanen da sorospen-zerbitzua ematen duen pertsona edo entitatea identifikatzea eta prestazioaren epe estimatua adieraztea.

4. Oporren, zeregin ludikoen edo jostetaren alorreko arrazoiak, maizterren erantzukizunpeko adierazpen bitartez frogatuak.

c) Maizterren jadaneko egoitza ohiko eta iraunkorraren helbidea zehaztera, erroldatze-ziurtagiria edo ohiko egoitzari buruzko beste frogagiri bat atxikiz.

d) Kontratuaren iraupena bat etorri beharko da kontratua egitea erakarri duen jarduera egiteko aurreikusten denarekin.

2. Etxebizitzaren lagapena edo azpierrementu guztizkoa nahiz partziala baimenduz gero, xedapen gehigarri honetan ezarritako betekizun guztiak bete beharko dira.

3. Errentatzaileek beren gain izanen dituzte Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko 40. artikuluan ezarritako informazio-betebeharrak, eta behartuta egonen dira xedapen gehigarri honetan ezarritako zertzeladei eta betekizunei buruzko behar adinako informazioa ematera.

4. Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroko inskripzioaren idazpenean, denboraldirako etxebizitzaz bestelako erabilerarako kontratuei dagozkienetan, jasoko dira xedapen gehigarri honetan aurreikusitako zertzeladei buruzko datuak.

Azken xedapenetako lehenengoa. Erregelamenduzko garapena egiteko gaikuntza.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru-lege hau aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-mailako xedapen guztiak onesteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Hala ere, Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroari buruzko xedapenek 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute efektua.

11-26/PRO-00010. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 5/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako Errepideei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 5/2007 Foru Legea, martxoaren 23koa, Nafarroako Errepideei buruzkoa

HITZAURREA

Gaur egun, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legearen 9. artikulua, errepideetako eremu funtzionalei eta zerbitzuko buruzkoak, ez ditu esanbidez errepideetako eremu funtzional eta zerbitzuko gisa barne hartzen errepide alboetako bizikleta-bideak eta ziklo eta oinezkoentzako bideak.

Gure gizarte osoaren funtsezko helburua da ingurumen-hobekuntza lortzea bizikletaren erabilera sustatuz, mugikortasun jasangarriko modua den heinean; hori horrela, bizikleta gero eta gehiago erabiltzen denez eguneroko mugikortasunerako zein jolas-, kirol- eta lan-xedeetarako, nabarmen handitu da gure geografiako bizikleta-bideen kilometro-kopurua.

Hori guztia kontuan hartuta, justifikatuta dago errepide alboetako bizikleta-bideak eta ziklo eta oinezkoentzako bideak berariaz aipatzea, errepideekin batera gauzatu eta mantendu daitezen, erabiltzaileen segurtasun, erosotasun eta arreta egokiaren mesederako, eta, era berean, Nafarroako errepide sareko gainerako zirkulazioaren funtzionamendu onaren mesederako.

Beste alde batetik, 40. artikulua aldatzen da, bizikleta-bideen eremuetan baimentzen ahal diren erabilerei dagokienez, halako moldez non baldintzaz salbuetsita geldituko baita zuhaitzak landatzeko debekua eremu funtzionalean bizikleta-bide bat edo ziklo eta oinezkoentzako bide bat dagoen kasuetarako.

Azkenik, xedapen gehigarri berri bat eranstean da, lerrokatuta egonen dena 899/2025 Errege Dekretuaren (899/2025 Errege Dekretua, urriaren 9koa, Errepideetako Erregelamendu Orokorra onesten duena) hirugarren xedapen gehigarriarekin. Haren bidez, modua emanen da bazterbideak erabiltzeko bizikleta-bideak egiteko.

Hori horrela, Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea aldatzen da:

Artikulu bakarra. Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea aldatzea.

Honela aldatzen da Nafarroako Errepideei buruzko martxoaren 23ko 5/2007 Foru Legea:

Bat. 9. artikulua aldatzen da, eta paragrafo berri bat gehitzen zaio haren 2. apartatuari, honako testu honekin:

“9. artikulua. Errepideetako eremu funtzionalak eta zerbitzukoak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eremu funtzionalak eta zerbitzukoak ezarri ahal ditu, bideen jabari publikoan sartuak, beharrezkoak iritziz gero errepideen zainketa eta ustiaketatarako, erabiltzaileentzako erosotasuna eta arreta egokiak izateko eta Nafarroako errepide sareko zirkulazioaren funtzionamendu onerako.

2. Eremu horietan zainketa eta ustiaketa zentro operatiboak paratu ahal dira, ibilgailuak ikuskatu eta pisatzeko tokiak, autobus geltokiak, erregaia hornitzeko instalazioak, atsedenguneak eta antzeko zerbitzuak.

Eremu funtzional eta zerbitzuko hartuko dira, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko garraio eta komunikazioen sistema orokorra antolatuz, hobetu edo erregularizatzeko lurrek edo instalazioek osatzen dituzten azpiegitura osagarriak, hala nola geltokiak, zentroak, trukerako guneak, aparkaleku gomendatuak eta antzeko beste edozein.

Orobat, eremu funtzional eta zerbitzuko hartuko dira eta bide-jabari publikoan integratuta egonen dira errepide alboetako bizikleta-bideak eta ziklo eta oinezkoentzako bideak.

3. Eremu funtzionalak eta zerbitzukoak mugatzeko irizpideak aurreko artikuluan errepideetarako erabili diren berberak izanen dira”.

Bj. 29. artikulua aldatzen da, testu berria emanez 2. apartatuari; testu hau izanen du aurrerantzean:

“29. artikulua. Kontzeptua eta edukia.

1. Bideen jabari publikoaren ustiaketan zaintze eta mantentze lanak sarturik daude, bai eta horien babesa, erabilera hobea eta aprobetxamendua helburu dituztenak ere.

2. Zaintze eta mantentze lanetan bideen jabari publikoko ondasunen egoera ona babesteko behar diren jarduerak daude sarturik, barne hartuta haren eremu funtzional eta zerbitzuko parte diren bizikleta-bideak eta ziklo eta oinezkoentzako bideak.

3. Babes ekintzen xedea bideen jabari publikoari kaltea edo galera ekartzen dioten jarduerak saihestea da, eta halaber Nafarroako errepide sarearen funtzionaltasuna eta bide segurtasuna.

4. Errepideen erabilera eta aprobetxamendu egokia haxe dela ulertzen da: errepideak segurtasun eta erosotasun baldintza onenetan erabiltzen laguntzea xede duten jarduketak. Ondorio horietarako, honakoak hartzen ditu bere baitan: informazio eta seinalizazioaren arloetako esku-hartzeak, babes eremuetako sarbideen eta erabileren antolaketa, eta ingurumen arloko lehengoratzeko edo babes jarduketak, beharrezkoak badira edo araudi sektorialean ezarriarik badaude”.

Hiru. Aldatu egiten da 40. artikuluen 4. apartatua, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“4. Ezin izanen da zuhaitz landaketarik baimendu, salbu eta eremu funtzionalean bizikleta-bideren bat edo ziklo eta oinezkoentzako bideren bat badago. Kasu horretan, errepideen arloan eskumena duen departamentuak landaketak baimentzen ahalko ditu, betiere metro batetik

gorako distantziara bizikleta-bidearen edo ziklo eta oinezkoentzako bidearen lur-berdinketaren kanpoko ertzetik, eta honako distantzia hauek errespetatuz errepidearen lur-berdinketaren kanpoko lerrotik:

a) Autobide, autobia eta bikoiztutako bideetan: zortzi metro.

b) Errepide konbentzional eta prestazio handikoetan: hiru metro”.

Lau. Xedapen gehigarri berri bat gehitzen da:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Bizikleta-bideak eta ziklo eta oinezkoentzako bideak.

1. Mugikortasun jasangarriaren arloko eskumenak dituen departamentuak bizikletazko mugikortasuneko ekimenak sustatuko ditu Nafarroako errepide sarearen esparruan, bateragarri eginez azpiegiturak gauzatzea sare jarraitu eta seguru bat sortzeko, zeinak balioko baitu hiriko, hiri-periferiako eta hiriarteko mugikortasunerako. Orobat, aipatutako departamentuak administrazio publiko eskudunekiko lankidetzak sustatuko du, arlo honetako politiken koherentzia bermatzeko aldera.

2. Errei anitzeko errepideetan eta eguneko batezbesteko intentsitatea txikia duten errepideetan, bereziki egoki jotzen bada horietan bizikleta-ibilbide bat sortzea edo lehendik dagoen bati jarraipena ematea, zilegi izanen da lehendik dauden bazterbideak murriztea edo kentzea Nafarroako errepide sareko errepideen alboetan bizikleta-bideak eta ziklo eta oinezkoentzako bideak gauzatzeko; betiere, justifikatuta ez direla kaltetzen ez bide-segurtasuneko baldintzak ez errepidearen ustiaketa egokia”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

11-26/PRO-00011. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzkoa

HITZAURREA

Nafarroako Parlamentuak 2005ean onetsi zuen politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko Foru Legea.

Foru-lege horren bidez, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordea arautzen da, zeina sortu baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kide anitzeko organo gisa, Nafarroako administrazio publikoen politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeaz arduratu dadin Nafarroako lurraldean. Organo hori, araua egin zen garaiko dinamikari jarraituz, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari atxiki zitzaion.

Atxikipen horrek zentzua galdu du, bi arrazoiengatik:

Batetik, politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioa zeharkakotasunezkoa delako, eta esparru sektorial guztiei eragiten die-lako; hori horrela, unitate guztien inplikazioa behar da ebaluazio horretan. Beraz, zentzua galdu du Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren zerbitzu bati atxikita egoteak, zeinaren xedea baita Nafarroako administrazio publikoen mendeko langileei prestakuntza ematea; lege-betebeharrengatik ezinbestekoa ez bada behintzat.

Bigarrenik, funtsezkoa delako administrazioek beren burua antolatzeke ahalmena izatea ahalik

eta modurik onenean eman ahal izateko beren zerbitzuak eta gauzatu ahal izateko politika publikoak unean uneko egoeren arabera.

Ildo horretan, kontuan izan behar da 10/2023 Foru Dekretuak (Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren 10/2023 Foru Dekretua, abuztuaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duena) 2. artikuluan xedatzen duela Lehendakari-tza eta Berdintasun Departamentuak beteko ditue-la politika publikoak planifikatu, koordinatu eta ebaluatzeari dagokionez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituen eskumenak.

Era berean, Lehendakari-tza eta Berdintasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 15eko 238/2023 Foru Dekretuan xedatzen da, alde batetik, 1.3 b) artikuluan, Lehendakari-tza eta Berdintasuneko kontseilariari esleitzen zaio-la Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordearen lehendakari-tza; eta, beste batetik, Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazio-ko Zuzendaritza Nagusiari ematen zaizkio politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak.

Bestalde, lehen esandako arrazoiengatik, beharrezkoa da Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordearen osaera eguneratzea, kasu batzuetan desagertu egin dire-lako hura osatzen duten kideekin lotuta aipatzen diren unitateak edo erakundeak, edo zaharkituta gelditu dire-lako. Arrazoi horiek berek justifikatzen dute Batzordearen idazkaritza ere aldatzea.

Hori horrela, aldatu egiten dira Politika publiko-ak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea-ren 23. artikulua-ren 3. eta 4. apartatuak.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legea.

Aldatu egiten dira foru-legearen 23. artikulua-ren 3. eta 4. apartatuak, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

“3. Honela osatuko da Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Foru Batzordea:

a) Batzordeburua: Nafarroako Gobernuak erabaki bidez izendatuko du.

b) Batzordekideak:

– Politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuaren ordezkari bat.

– Aurrekontuen arloko eskumenak dituen departamentuaren ordezkari bat.

– Toki-administrazioaren alorreko eskumenak dituen departamentuaren ordezkari bat.

– Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren edo berdintasunaren alorreko eskumenak dituen erakundearen ordezkari bat.

– Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko hiru ordezkari.

– Nafarroan kudeaketa-bikaintasunaren edo -kalitatearen alorrean erreferente den entitate edo fundazioaren ordezkari bat. Halako entitate edo fundazio batek baino gehiagok nahi badute Batzordean parte hartu, Nafarroan duten garrantzia eta lurralde-erazpena hartuko dira kontuan hautaketa egitean.

– Foru Komunitatean langile-ordezkarien, enpresa-batzordeetako kideen eta administrazio publikoetako dagozkien organoetako kideen 100eko 10 edo gehiago ordezkatzan dituen erakunde sindikal bakoitzaren ordezkari bat, aipatutako adierazpen-esparru horien arteko guztizkoan kontuan hartuta ehuneko hori.

c) Idazkaria: funtzionario edo langile publiko bat, politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuak izendatua.

Foru-dekretu bidez zabaldu ahalko da Batzordearen osaera, politika publikoen eta zerbitzu

publikoen kalitatearen ebaluazioari zuzenean loturiko beste unitate edo entitate batzuk sartzeko.

Orobat, adituak edo entitateetako ordezkariak edo pertsonak gonbidatu ahalko ditu Batzordeak, landu beharreko gaia edo arloa zein den ikusita.

Politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuaren titular den pertsonak eginen du Batzordeko kideen eta idazkariaren izendapena.

4. Bere xedekak bete daitezen, politika publikoen plangintza eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuak eskuratzen dizkion bitarteko materialak eta giza baliabideak izanen ditu Batzordeak, hari atxikita egonen baita”.

Xedapen gehigarri bakarra. Arau-erreferentziak.

Politika publikoen ebaluazioa garatzen duten arau eta planetan Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuari egiten zaizkion aipamenak politika publikoen plangintza, koordinazio eta ebaluazioari dagozkion eskumenak dituen departamentuari eginak direla ulertuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetu egiten dira foru-lege honetan ezarritakoarekin kontraesanetan dauden maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

11-26/PRO-00012. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 10/2010 Foru Legea, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2026ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 10/2010 Foru Legea, maiatzaren 10ekoa, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzkoa

HITZAURREA

Nafarroako etxebizitza babestuen araubide juridikoaren erregulazioak bilakaera mailakatua izan du, babes publikoaren egonkortasuna eta iraunkortasuna sendotzera bideratua, etxebizitza duin eta ordainerrazaren lorbidea bermatzeko eta espekulazio-dinamiketatik at egonen den parke bat gordetzeko.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 43. artikulua ezartzen du gaur egun etxebizitza babestuen babes-araubideak izaera mugagabea duela, eta eragotzi egiten du haiek deskalifikatzea. Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legeak ezarri zuen xedapen hori.

Erreforma horren aurretik, aldi baterako zenbait babes-araubide ezarriak zituen Nafarroako araudiak. Esate baterako, Nafarroako etxebizitzaren babes publikoari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeak, oro har, hogeita hamar urteko iraupena ezartzen zuen, behin betiko kalifikaziotik aurrera, eta, gainera, epe espezifikoak ezartzen zituen errentamendu babestuko modalitate jakinetarako.

Gerora, 10/2010 Foru Legeak eutsi egin zion hogeita hamar urteko iraupen horri jabetza-araubidean eta eros-aukeradun errentamenduko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuen

tzat; aldiz, hamabost urteko iraupena ezartzen zuen errentamendu-araubidean kalifikatutako etxebizitzaren babes-araubiderako.

Geroago egindako erreformen bidez handituz joan zen pixkanaka babes publikoaren iraupena. Bereziki, izaera mugagabea ezarri zen erabilera-lagapeneko etxebizitzaren babeserako, azalera-erabilerarekin lotutako egoeretarako izan ezik, eta hirurogeita bost urteko iraupena ezarri zen 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera kalifikatutako sustapen publiko jakinentzat.

Azkenik, 20/2022 Foru Legeak orokortu egin zuen etxebizitza babestuen babes-araubidearen izaera mugagabea.

Arau-bilakaera horren ondorioz, babes-epe desberdinak dituzten etxebizitza babestuen sustapenak daude gaur egun Nafarroan, behin betiko kalifikazio jaso zuten unearen eta une hartan indarrean zegoen araubide juridikoaren arabera-koak baitira epe horiek.

Foru-lege honen xedea da Nafarroako etxebizitza babestuen parkearen egonkortasuna eta iraunkortasuna sendotzea.

Xede horrekin, hasteko, kendu egiten da 10/2010 Foru Legearen 7. artikulua 10. apartatua; hartara, aurrerantzean ezin izan dira salmentara bideratu errentamendu-araubidean edo errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuak behin betiko kalifikazioa kasu zutenetik hogeita bat urte igarotzen direnean.

Arauketa berri honekin, etxebizitza horiek errentamendu-araubidean jarraitu beharko dute, eta, horrela, alokairuko etxebizitza babestuen parke egonkor bat finkatuko da, eta haren eginkizun soziala indartuko.

Aldaketa hori aplikatzekoa izanen zaie errentamendu-araubidean nahiz errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuen sustapen guztiei, haien behin betiko kalifikazioa edonoz egin zelarik ere.

Bigarrenik, aldatu egiten da 49. artikulua 1. apartatua; paragrafo berri bat gehitzen zaio lehen-tasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea etxebizitza babestu deskalifikatuetara eta haien eranskinetara hedatze aldera baldintza jakinetan.

Azkenik, indargabetu egiten da Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen lehen xedapen iragankorra. Xedapen horrek espediente jakinetara mugatzen zuen babes-araubide mugagabearen aplikazioa: behin-behineko kalifikazioaren eskabidea foru-lege horrek indarra hartu baino geroagokoa zuten espedienteetara soilik, zehazki.

Xedapen hori indargabetzearen xedea da ahalbidetzea 10/2010 Foru Legearen 43. artikuluan aurreikusitako iraupen mugagabea aplikatzea errentamendu-araubidean edo errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuei, foru-lege honek indarra hartzean indarreko babes-epea dutenei, haien behin betiko kalifikazioa edonizkoa izanik ere, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitako moduan.

Horrela, sustatu nahi da etxebizitza eroserraza izaten jarraitzea Nafarroako etxebizitza-merkatuan, parke babestu erabilgarria murriztea dakarten deskalifikazio-prozesuan ekiditea eta, horrela, etxebizitza babestuaren eginkizun soziala sendotzea.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

Bat. Kendu egiten da Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7. artikularen 10. apartatua.

Bj. Aldatu egiten da 49. artikularen 1. apartatua, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Salmenta prezioa eta errenta mugatuak dituzten etxebizitza babestuetan eta, orobat, haien eranskinetan, Nafarroako Gobernuak lehentasunez erosteko eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzen ahalko ditu kostu bidezko lehenengo eta ondorengo inter vivos eskualdatzeetan.

Eta berdin deskalifikatuak izan diren etxebizitza babestuetan eta, orobat, haien eranskinetan, baldin eta eskualdatzearen unean edukitzailerik handi baten titulartasunekoak badira eta tentsiopeko etxebizitza-merkatu aitortutako zona batean badaude, dagoen babes-araubidea bukatu eta hurrengo hamar urteetan egiten diren kostu bidezko lehenengo eta ondorengo inter vivos eskualdatzeetan”.

Xedapen iragankor bakarra. Aplikatzekoa den araubidea.

1. Foru-lege honen artikulua bakarrean aurreikusi bezala Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7. artikularen 10. apartatua kentzeak eraginen dituen ondorioak aplikatzekoak izanen zaizkie errentamendu-araubidean nahiz errentamendu eroserrazeko araubidean kalifikatutako etxebizitza babestuen sustapen guztiei, haien behin betiko kalifikazioa edoniz egin zelarik ere.

2. Errentamendu-araubideko eta errentamendu eroserrazeko araubideko etxebizitza babestuak, foru-lege honek indarra hartzean indarreko babes-araubidea dutenak, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 43. artikuluan aurreikusitako iraupen mugagabearen mende geldituko dira, haien behin betiko kalifikazioa edoniz egin zelarik ere.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetu egiten dira foru-lege honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden maila bereko nahiz txikiagoko xedapen guztiak eta, zehazki, Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen lehen xedapen iragankorra.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/DEC-00033. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere atsekabea adierazten baitu Venezuelan izandako lurrikara bikoitzaren ondorio izugarriengatik

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere atsekabea adierazten du joan den asteazkenean Venezuelaren iparraldean izandako lurrikara bikoitz horren ondorio izugarriak direla-eta, bere babes guztia helarazten die biktimen familiartekoei, eta hondamendi horrek zauritutakoak eta ukitutakoak laster eta erabat sendatuko direla espero du.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Venezuelaren minarekin, zeinak bere egunerokoa hautsita ikusi baitu naturaren eraso horren ondorioz.

3. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta maitasun osoa helarazten die une latz hauetan Nafarroan dauden venezuelarrei.

4. Nafarroako Parlamentuak dei urgentea egiten die foru-komunitateko gobernuz kanpoko erakundeei, entitate eta erakunde publiko zein pribatuei eta gizarte zibilar, Venezuelako herriarekiko laguntza solidario eta humanitarioarekin bat egin dezaten eta beren laguntza eskain dezaten”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00197. Galdera, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-produktuak eta elikagaiak hegoaldeko herrialdeetara esportatzeari buruzkoa**CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, nekazaritza- nahiz abeltzaintza-produktuak eta elikagaiak hegoaldeko herrialdeetara esportatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) onetsi zuen. Itun horretan jasotako neurrien garapenaren jarraipena egiteko, batzorde berezi bat eratu da; besteak beste, itunean jasotako neurrien betetze-mailari buruzko informazioa biltzeko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari txosten bat eskatuko dio, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren esparruan dituen merkataritza-harremanei buruzkoa, beste herrialde batzuetako komunitateen elikadura-subiranotasunari eta garapen jasangarriari kalterik egiten ez dietela bermatzeko.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari:

Nafarroako Gobernuak zer informazio darabil nekazaritza- nahiz abeltzaintza-produktuak eta elikagaiak hegoaldeko herrialdeetara esportatzeari dagokionez?

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/PES-00199. Galdera, ekologiaren sektoreko eragileen kopuruari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, ekologiaren sektoreko eragileen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean,

honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) onetsi zuen. Itun horretan jasotako neurrien garapenaren jarraipena egiteko, batzorde berezi bat eratu da; besteak beste, itunean jasotako neurrien betetze-mailari buruzko informazioa biltzeko.

Parlamentuak berariaz sustatuko ditu nekazaritza ekologikoaren edota agronomiaren arloko ekin-tzailatza-lerroak, landa eremuak suspertzeko, elikadura hobetzeko eta lehen sektorearen alde apustu egiteko.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari:

Zenbat eragile dago ekologiaren sektorean?

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/PES-00200. Galdera, ekoizpen ekologikora bideratzen den azaleraren portzentajeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, ekoizpen ekologikora bideratzen den azaleraren portzentajeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) onetsi zuen. Itun horretan jasotako neurrien garapenaren jarraipena egiteko, batzorde berezi bat eratu da; besteak beste, itunean jasotako neurrien betetze-mailari buruzko informazioa biltzeko.

Neurrietako bat da Nafarroako Parlamentuak urtero ezarriko dituela tokiko nekazaritza-ekoizpen ekologikoa indartzeko neurriak.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari:

Nekazaritza-azalera erabilgarriaren zer portzentaje bideratzen da gaur egun ekoizpen ekologikora?

Azaleraren zer portzentaje bideratzen da nekazaritza organikora?

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/PES-00201. Galdera, Arga ibaiaren ondoko kokalekuetan bizi diren etxerik gabeko pertsonen bizi-baldintzak eta arreta hobetzeari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Arga ibaiaren ondoko kokalekuetan bizi diren etxerik gabeko pertsonen bizi-baldintzak eta arreta hobetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz hartuko du Arga ibaiaren ondoko kokaleku inprobisatuetan ahal bezala bizi diren etxerik gabeko pertsonen bizi-baldintzak eta arreta hobetzeko, bereziki arrisku egoeratan, bero-bolada edo uholde kasuetan adibidez?

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Foru-parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-26/PES-00202. Galdera, Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legeak aurreikusitako erregistroan izena emandako operadoreei buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren martxoaren 9ko 5/2023 Foru Legeak aurreikusitako erregistroan izena emandako operadoreei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) onetsi zuen. Itun horretan jasotako neurrien garapenaren jarraipena egiteko, batzorde berezi bat eratu da; besteak beste, itunean jasotako neurrien betetze-mailari buruzko informazioa biltzeko.

Neurrietako bat da Nafarroako Parlamentuak urtero ezarriko dituela tokiko nekazaritza-ekoizpen ekologikoa indartzeko neurriak.

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari:

Hurbil merkaturatzen duten zenbat eragilek eman dute izena Nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko kanal laburren 5/2023 Foru Legean aurreikusten den erregistroan?

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/PES-00203. Galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak esleitzeko prozedurari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Belateko tunelak bikoizteko obrak esleitzeko prozedurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Belateko tunelak bikoizteko obrak Acciona Construcción, S.A., Servinabar 2000, SLk eta Excavaciones Fermín Osés, SLk osatutako aldi

baterako enpresa-elkarteari esleitzeko prozedurari dagokionez, kontratazio publikoko espediente osoak nahitaez jaso behar duenez hartu diren erabaki guztien trazabilitatea,

Zer boto partikular, desadostasun-txosten, ohartarazpen tekniko, barne-ohar, unitateen arteko komunikazio, akta, mezu elektroniko edo zerbitzu-ohar eman zituzten langile tekniko edo juridikoek espedientea izapidetzen zen bitartean?

Zer jarduketa zehatz egin zuen kontratazio-organoak ohartarazpen horietako bakoitzari erantzuteko? Adierazi:

- a) Zer egunetan egin ziren,
- b) Zer unitate edo pertsonak egin zituen,
- c) Zer erabaki hartu zen,
- d) Horien motibazio tekniko edo juridikoa,
- e) Zer dokumentaziok babesten zuen hori, eta
- f) Ea ohartarazpena onartu zen, partzialki onartu zen edo ezetsi zen (eta ezetsi baldin bazen, zerk justifikatu zuen ezespena).

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Foru-parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00204. Galdera, Sesmako biometano-plantaren proiektuari buruzkoa

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak egindako galdera, Sesmako biometano-plantaren proiektuari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Sesmako biometano-plantaren proiektuari dagokionez (horren ingurumen-baimen integratua deuseztatu egin zen, digestatzen kudeaketarako lurralde-oinarri nahikorik ez izateagatik):

- Enpresa sustatzaileak aurkeztu al du lurralde-oinarria akreditatzeko behar diren baimenak eta hektareak direla-eta detektatu diren gabeziak zuzentzeko behar den dokumentazioa?
- Noiz aurkeztu zuen eta zer aurkeztu zuen gabezia horiek zuzentzeko?
- Departamentuak uste al du dokumentazio horrek, baldin eta aurkeztu bada, egindako errekerimenduei erantzuten diela?
- Zer administrazio-izapide falta dira espediente behin betikoz ebazteko?
- Departamentuak zer epe dauka errekerimenduhoriei erantzuteko?
- Departamentuak zer egutegi darabil gogoan ingurumen-baimen integratuari buruzko ebazpena emateko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Foru-parlamentaria: Carlos Mena Blasco

11-26/PES-00205. Galdera, iberiar otsoaren kontserbazioaren egoera dela-eta Espainiak Europako Batzordean sei urtean behin aurkeztu behar duen txostenari buruzkoa

FÉLIX ZAPATERIO SORIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapaterio Soria jaunak egindako galdera, iberiar otsoaren kontserbazioaren egoera dela-eta Espainiak Europako Batzordean sei urtean behin aurkeztu behar duen txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer jarrera defendatu du iberiar otsoaren kontserbazioaren egoera dela-eta Espainiak Europako Batzordean sei urtean behin aurkeztu behar duen txostenari dagokionez eta zer datu eta kudeaketa-neurri baliatu du Nafarroak txosten hori taxutzeko?

Iruñean, 2026ko ekainaren 24an

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko irailaren 15eko 12:00ak arte** luza-tzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/ELCR-00003. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMPren Administrazio Kontseilurako Nafarroako Parlamentuak proposatu beharreko kideen izendapena

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko ekainaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SMPren Administrazio Kontseilurako kide izateko proposatzea Nafarroako Parlamentuak hautatutako hauek:

– Ainhoa Unzu Garate andrea.

– Asier Baztan Beperet jauna.

– Juan Carlos Longás García jauna.

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

